

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10585 *13/2021 Errege Lege Dekretua, ekainaren 24koa, honako hauek aldatzen dituena: 2/2021 Legea, martxoaren 29koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena; eta 26/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurriena.*

COVID-19aren epidemiaren bilakaerak eta 2021eko lehen seihilekoan Espainian lortzen ari diren txertaketa-estaldurek aukera ematen dute transmisioa kontrolatzeko zenbait neurri arian-arian murrizten hasteko. Txertaketa-estaldurek % 70 gainditzen dutenean biztanleria osoan eta hura osatzen duen talde bakoitzean, edo, gutxienez, txertaketarako helburu-taldeetan, eta egoera epidemiologikoa 1. alerta-mailaren azpitik egonkortzen denean lurralde guztietan, prozesu hau, azkenik, «Normaltasun berria»n amaituko da, izen hori eman baitio Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak, «COVID-19aren transmisioa kontrolatzeko erantzun koordinatuko jarduketak» dokumentuan (eskuragarri dago Osasun Ministerioaren web-orrian).

Maskara nahitaez erabili beharra izan da transmisioa kontrolatzeko inpaktu handiena izan duen neurrietako bat, eta, gainera, nolabaiteko interakzio soziala ahalbidetu du. Neurri hori COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien martxoaren 29ko 2/2021 Legearen 6. artikulua bidez hartu zen.

COVID-19aren epidemiak herrialdeko lurraldeetan izan duen bilakaeraz gainera, aintzat hartu behar da txertaketa-programa gero eta estaldura handiagoa lortzen ari dela, bereziki talde kalteberenetan: 2021eko ekainaren 23an, 80 eta 70 urtetik gorakoek % 100 eta % 96,4, hurrenez hurren, pautu osoa hartuta zeuden, eta, 60 eta 50 urtetik gorakoek artean, % 93,2 eta % 86,3, hurrenez hurren, dosi bat hartuta; gainera, biztanleen % 50ek txertoaren dosi bat jaso dute, gutxienez. Testuinguru honetan, egokia izan liteke maskara erabiltzeko derrigortasuna arintzea zenbait inguruetan eta egoeratan, gurearen antzeko egoera duten inguruko beste herrialde batzuek egin duten bezala.

Datu horiek guztiak eta, bereziki, SARS-CoV-2 koronabirusa aire zabaleko espazioetan maila apalagoan transmititzen delako ebidentzia zientifikoa aintzat hartuta, Gobernuaren iritziz, beharrezkoa da aldaketak egitea biztanle guztiei eragiten dieten izaera ez-farmakologikoko neurri sanitarioetan, eta, neurri horien artean, maskaren erabilera dago.

Errege lege-dekretu honek berekin dakartzan aldaketak bereziki lotuta daude bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan maskara nahitaez erabili beharra indargabetzearekin. Horregatik, indargabetze hori gauzatzeko, errege lege-dekretu honen bidez, martxoaren 29ko 2/2021 Legearen 6. artikulua aldatzen da (2/2021 Legea, martxoaren 29koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena).

Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da maskara aire zabalean erabiltzen jarraitzea, pilaketak gertatzen direnean eta ezinezkoa denean pertsonen arteko 1,5 m-ko gutxienezko tartea gordetzea, elkarrekin bizi diren pertsona taldeen kasuan izan ezik. Garraibide publikoetan ere, nahitaezkoa izango da maskara erabiltzen jarraitzea, bai eta bidaiari-geltokietan eta -nasetan eta teleferikoetan ere. Hala ere, ontzi eta itsasontzietako bidaiariek aurrerantzean ez dute maskara erabili beharrik izango, baldin eta ontziaren kanpoaldeko espazioetan badaude eta 1,5 m-ko segurtasun-tartea gordetzen badute. Aire zabaleko ekitaldi jendetsuetan ere arautu egiten da maskararen erabilera, honela: nahitaezkoa izango da, bertaratuak zutik badaude, edo, eserita egonik, ezinezkoa badute pertsonen arteko 1,5 m-ko tartea gordetzea, elkarrekin bizi diren pertsona taldeen kasuan izan ezik.

Espetxeetako egoera bereziak ere aintzat hartu behar dira. Beharrezkoa da maskararen erabilera espetxeen berezitasunetara eta antolamendura egokitzea, bai eta espetxeratuen eta espetxeetako langileen premietara ere. Hori dela eta, espetxe-agintari eskudunei dagokie arlo horretako erabakiak hartzea.

Bestalde, Futbol Profesionaleko Ligaren eta saskibaloiko ACB Ligaren kasuan, martxoaren 29ko 2/2021 Legearen 15.2 artikulua araberako, Kirol Kontseilu Gorenak du eskumena, lehiaketaren antolatzaileari, Osasun Ministerioari eta autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, erabakiak hartzeko edukierari, prebentzio-neurriei eta kirolariak nahiz ikusleak babesteko neurriei buruz, betiere egoera sanitarioa aintzat hartuta. Lehiaketa horien ezaugarri bereziengatik dago aurreikusita berariazko araubide hori –lurralde nazional osoan egiten dira lehiaketok–, baina aurrerantzean ez da beharrezkoa izango, behin egoera normalizatuta eta lehiaketa profesionali berriro ekin zaienean publikoa arian-arian lehiaketa horietara joaten hasita. Hori dela eta, errege lege-dekretu honen bidez, indargabeturik geratzen da martxoaren 29ko 2/2021 Legearen 15. artikuluko 2. apartatua.

Aipatutako neurriez gain, uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua aireportuetako terminaletara sartzeko murrizketak ezartzen ditu epemugarik gabe (26/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurriena). Pandemiaren bilakaera ikusita, eta txertaketan eta herritarrek pandemiatik babesten egindako aurrerapenak kontuan hartuta, prozedura bat ezarri beharra dago murrizketa horiek osasun publikoaren beharrezkoetara egokitzeko, aintzat hartuta herritarrek erdietsitako babes-maila, eta helburu izanda jarduera ekonomikoa suspertzen laguntzea eta pixkanaka normaltasunera itzultzea, bereziki turismoa berriro aktibatuzko. Hori dela eta, errege lege-dekretu honen bidez, uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua aldatzen da, 3. apartatua gehituta. Aldaketa horren xedea da aukera izatea, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez, interes orokorreko aireportuetako terminaletara joateko mugak aldatzeko, betiere Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak eta Osasuneko ministroak hala proposatuta, eta pandemiaren bilakaera aintzat hartuta.

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuan maskararen erabileraz hasieran hartu ziren neurriekin gertatu zen bezala (errege lege-dekretu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriak hartu ziren), oraingo neurri hauek ere lehenbailehen hartu behar dira, herritarrei mezu argi eta berehalako bat helarazita, haiek eredugarri eta arduraz bete baitituzte pandemiaren hasieratik osasun-agintaritzek hartu dituzten neurriak. Bidezkoa da, beraz, herritarren eguneroko jarduerak eta harremanak zuzentzen dituzten arauak proportzionatuak izatea eta bat etortzea beren xedearekin eta adierazle epidemiologikoen bilakaerarekin.

Bestalde, aipatu bezala, lehenbailehen hartu behar dira neurri hauek, baina hori ez litzateke lortuko ezta izapidetze parlamentariarako presazko prozedura erabilita ere; horregatik da premia larri eta apartekokoa errege lege-dekretu hau onartzea maskararen erabilerari buruzko arauak herrialdearen egoera epidemiologikora egokitzeko. Konstituzio Auzitegiak hainbat aldiz eman du iritzia premia larri eta apartekoari buruz (Konstituzio Auzitegiaren 139/2016 Epaia, uztailaren 21ekoa), eta, haren esanetan, «lege-dekretuaren erabilera egoki fiskalizatzeko, beraz, beharrezkoa da organo politikoek “era esplizituan eta arrazoituan” zehaztea zer den “premia larri eta aparteko”ko egoera bat», eta, hortaz, «“premia larri eta apartekoa” justifikatzeko, beti osotasunean baloratu behar da zer faktorek bultzatu zuten Gobernuaren kasuan kasuko salbuespenezko lege-xedapena ematera». Egungo egoeraren balorazioak, adierazle epidemiologikoen bidez eta erdietsitako txertaketa-mailaren bidez definituta, justifikatzen du errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak hartzea; izan ere, ez dago dudarik berehalako onura ekarriko dietela herritarrei, eta, gainera, herrialdearen egoera epidemiologikoari egokitzen zaizkio. Bat datoz, hortaz, «Gobernuari dagokion judizio politikoarekin edo egokitasun-judizioarekin» (Konstituzio Auzitegiaren 182/1997 Epaia, urriaren 30ekoa).

Errege lege-dekretu hau, halaber, bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan finkatutako erregulazio onaren printzipioekin, eta, zehazki, eraginkortasun-, efizientzia- eta proportzionaltasun-printzipioekin. Izan ere, testu arauemaile honetan, argiro zedarrituta dago zer egoeratan den nahitaezkoa maskara erabiltzea eta zein diren salbuespen-egoerak, eta, gainera, hori guztia pandemiaren bilakaerari buruz berriki izan diren adierazle onei egokitzen zaio. Errege lege-dekretua, orobat, segurtasun juridikoaren printzipioari egokitzen zaio, herritarrei arau bat ematen baitie maskaren erabilera arautzen duena, eta indargabeturik uzten baitu araudi bat, zenbait kirol-lehiaketa profesionali dagokienez gaindituta zegoena. Gardentasun-printzipioari dagokionez, arau hau salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, lege-dekretua baita, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikulua horretarako ematen duen baimenari jarraituz.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren honako artikulua hauetan aurreikusitako eskumen-tituluen babesean ematen da: 149.1.16. artikulua, Estatuari eskumena ematen diona kanpo-osasunaren, osasunaren oinarrien eta koordinazio orokorraren eta farmazia-produktuei buruzko legediaren gainean; eta 149.1.20. artikulua, Estatuari eskumena ematen diona interes orokorreko aireportuen eta aire-zirkulazioaren eta -garraioaren gainean.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua baimenaz baliatuta, Osasuneko ministroak eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2021eko ekainaren 24ko bileran proposamena eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua. *Martxoaren 29ko 2/2021 Legea aldatzea, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena.*

Aldatu egiten da 2/2021 Legea, martxoaren 29koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena; honela:

Bat. Honela geratzen da idatzita 6. artikulua:

«6. artikulua. *Maskarak nahitaez erabili beharra.*

1. Sei urtetik gorako pertsonak honako egoera hauetan erabili beharko dituzte maskarak:

a) Erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan.

b) Aire zabaleko edozein espaziotan, baldin eta, pertsonen pilaketa dela eta, ezinezkoa bada haien artean 1,5 m-ko gutxienezko tartea gordetzea, elkarrekin bizi diren pertsona taldeen kasuan izan ezik.

c) Aireko, itsasoko edo trenbideko garraiobideetan eta autobusetan, bidaiari-nasak eta -geltokiak barnean direla, teleferikoetan, bai eta bidaiarien garraio publiko eta pribatu osagarrietan ere, bederatzi eserleku arteko ibilgailuetan, gidariaren eserlekua barnean dela, baldin eta turismo-ibilgailuetako bidaiariak ez badira etxebizitza berean bizi. Ontzi eta itsasontzietako bidaiariak ez dute maskararik erabili beharko, beren gelaren barruan, edo ontziaren kanpoko espazioetan daudenean, baldin eta pertsonen arteko segurtasun-tartea gutxienez 1,5 metrokoa izatea bermatu ahal bada.

d) Aire zabaleko ekitaldi jendetsuetan, bertaratuak zutik badaude, edo, eserita egonik, ezinezkoa badute pertsonen arteko 1,5 m-ko tartea gordetzea, elkarrekin bizi diren pertsona taldeen kasuan izan ezik.

2. Aurreko apartatuan ezarritako betebeharra ez da eskatuko honako kasu hauetan:

a) Maskara erabiltzeagatik larriagotu daitekeen arnas-gaixotasunen bat edo arnasteko zailtasunen bat duten pertsoneri, ez eta desgaitasuna edo mendekotasuna izateagatik maskara kentzeko gai ez direnei eta jokabide-nahasmenduak izateagatik maskara erabiltzerik ez dutenei ere.

b) Jardueren izaeragatik beragatik, maskara erabiltzea bateraezina denean, osasun-agintarien jarraibideen arabera.

c) Erabilera publikoko toki edo espazio itxietan, bertan elkartzen diren kolektiboen bizitokiaren parte badira, hala nola: adinekoak edo dibertsitate funtzionala dutenak artatzeko erakundeak eta funtsezko langileentzat eta antzeko ezaugarriak dituzten kolektiboentzat bizitoki kolektibo gisa erabiltzen diren gelak, betiere beren eginkizunak han betetzen dituzten langile eta kolektibo horiek SARS-CoV-2aren aurkako txertoaren pautara osoaren % 80tik gorako estaldura badute, osasun-agintari eskudunek hala egiaztatuta.

Azken salbuespen hori ez zaie aplikatuko kanpoko bisitariei, ez eta adinekoentzako edo dibertsitate funtzionala dutenentzako egoitzetako langileei ere.

3. Espetxeratuek mugikortasunerako aukera duten espetxeetan, espetxe-agintaritzak eskudunak ezarritako arau espezifikoaren bidez arautuko da maskaren erabilera, bai kanpoaldeko espazioetan, bai espazio itxietan.

4. Banaka paketatuta ez dauden maskara kirurgikoak farmazia-bulegoetan bakarrik saldu ahal izango dira banaka, produktuaren kalitatea zainduko duten higie-ne baldintza egokiak bermatuta».

Bi. 15. artikuluko 2. apartatua kentzen da.

Bigarren artikulua. *Uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurriena.*

COVID-19ak izan duen eraginari aurre egite aldera garraio- eta etxebizitza-arloko ekonomia suspertzeko neurrien uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua aldatzen da, 3. apartatua gehituta. Honela dio apartatu horrek:

«3. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak eta Osasuneko ministroak proposatuta, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu ahal izango dira interes orokorreko aireportuko terminala sartzeko mugak, COVID-19aren pandemiaren bilakaerara egokitu daitezela».

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikulua babesean eman da; artikulua horrek Estatuari esleitzen dio kanpo-osasunaren, osasunaren oinarrien eta koordinazio orokorraren eta farmazia-produktuei buruzko legediaren gaineko eskumena.

Bigarren artikulua, gainera, Espainiako Konstituzioaren 149.1.20 artikulua babesean ematen da; artikulua horrek Estatuari eskumena esleitzen dio interes orokorreko aireportuen eta aire-zirkulazioaren eta -garraioaren arloan.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madrilen, 2021eko ekainaren 24an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN